

*Haurren eta nerabeen eskubideei eta Euskadiko ingurune
digitalean duten babesari buruzko azterketa*



#KONEXIORIKGABEKO

ESKUBIDEAK



Save the Children

Aurkibidea

	Sarrera	3
1. Eskubideen ikuspegia ingurune digitalean		4
2. Interneten erabilera		5
3. Ingurune digitalaren erabilerarekin lotutako zeinbat arrisku-faktore		9
4. Interneten erabilerarekin lotutako arriskuak		10
5. Sareko indarkeria		17
6. Gomendioak		20
	Ondorioa	22



Sarrera

Gaur egun, mundu digitalak oso lotura estua du gure egunerokoarekin, gure ohiturekin eta gure bizitzako ia alderdi guztiekin. Azken hogeitun urtean, Internetek, sare sozialek eta horiek erabiltzeko gailuek zehaztu dituzte informazioa eskuratzeko gure modua, kultura eta aisialdia kontsumitzeko bideak, edota pertsonekin harremanetan jartzeko gure erak. Bidaia horretan, teknologiek aurrera egin ahala sartu gara helduok horietan, baina gure oroimenean ditugu mundu "aurredigital" eta analogiko baten erreferentziak. Aurrerabide hori pixkana egin badugu ere, harreman konplexua eta mendekotasunezkoa dugu pertsona heldu askok gailu eta mundu digital horiekin. Baina ez gara bakarrik sartu mundu digital berri horretan; geurekin eramán ditugu haur eta nerabeak. Horretarako guneak egokitu gabe, ondorioetan pentsatu gabe, erosotasunagatik, interesak bultzatuta edo inertzia hutsez, Interneteko ateak eta guneak zabaldu dizkiegu, eta, horrek ekar ditzakeen arriskuak hauteman ditugunean, eremu askotatik planteatzen den irtenbide nagusia haiek kanporatzea da, beste aukerarik planteatu gabe.

Save the Childrenen, uste dugu **haur eta nerabeen eskubideak ezin direla albo batera utzi, ezta mundu digitalean ere**. Gure ustez, eskubidea dute teknologiarekin duten harremanari buruz beren iritzia emateko eta teknologia horren mugei buruzko erabakietan parte hartzeko, aditu eta espezialistekin batera. Horregatik, nerabeek Internet eta sare sozialek nola erabiltzen dituzten aztertu nahi dugu txosten honetan, eta, horretarako, askotariko galderak egin dizkiegu, hala nola zenbat orduz erabiltzen dituzten, zer edukitara jotzen duten, nola sentiarazten dituzten, edota ingurune digitalak planteatzen dizkien arrisku eta erronkei aurre egiteko prest dauden. Horretarako, inkesta bat egin diegu 14 urtetik gorako Espainiako 3.315 neraberi (292 nerabe Euskadin, eta sei ikastetxe) eta 10-17 urte bitarteko haur eta nerabeez osatutako bost eztabaida-talderi (27 haur eta nerabe talde bakoitzean).

Horrez gain, sektoreko zenbait aditu eta profesionalen gai honetaz zer iritzia duten jakin nahi izan dugu, besteak beste, teknologiaren gehiegizko erabilerarekin lotutako patologia lantzen dituzten gizarte-langileei edota web-zerbitzuen sortzaileei galdetuz. Hala, zarata eta builak alde batera utzita, errealitate horri ahalik eta ikuspegi zabalenetik eta belaunaldien arteko elkarrizketaren bidez heldu nahi izan diegu, eta ikuspegi horiek guztiak kontuan hartzen dituzten gomendio batzuk planteatu ditugu.

Hori guztia eskubideen ikuspegitik egin nahi izan dugu batik bat, haurren eta nerabeen eskubideak ez daudelako inongo agertoki (geografiko nahiz birtual) baten mende. Izan ere, haur eta nerabe guztien eskubide guztiak bete beharrekoak dira, beren bizitzako esparru guztietan. Eta, bai, arriskuak ditu Internetek. Baina, horrez gain, zenbait eskubide eta balio positibo garatzeko tokia ere bada, eta ezin da hori guztia kolpe batez ezabatu.



1. Eskubideen ikuspegia ingurune digitalean

Ingurune digitalean hurrek eta nerabeek dituzten eskubideak erabiltzeko kezka ez da berria. Esaterako, Haurren Eskubideen Batzordeak ohar orokor bat onartu zuen 2021eko martxoan ingurune digitalean haur eta nerabeek dituzten eskubideez.¹ Eta funtsezkoa da ohar orokor horretan jasotzen den baieztapen nagusietako bat gogoratzea, begien bistakoa bada ere: **“Ingurune digitalean, haur guztien eskubideak errespetatu, babeste eta gauzatu behar dira”**.²

Batzorde horrek dio teknologia digitalen esparruko berrikuntzek ondorioak dituztela haur eta nerabeen bizitzan, baita haur eta nerabe horiek Interneten sarbiderik ez dutenean ere, eta teknologia digitaletan “probetxuzko” sarbidea izateak beren eskubide zibil, politiko, kultural, ekonomiko eta sozialak gauzatzeko lagundu diezaiekeela. Inklusio digitalik lortu ezean desberdintasunak areagotu daitezkeela dio, eta beste batzuk ere sortu daitezkeela.

Eskubideen ikuspegitik, funtsezkoa da zehatz-mehatz aztertzea zer eskubide sartzen diren jokoan haur eta nerabeak ingurune digitalean sartzen direnean. Zer eskubide dituzten baldin badakigu eta beren osotasunean heltzen badiegu soilik hartu ahal izango ditugu erabaki orekatuak eta egokiak, zuzenbidearen ikuspegitik. Hala, 25. Ohar Orokorrak dioenaren ildotik, hauek dira haurren eta nerabeen kasuan jokoan sartzen diren eskubide nagusiak: diskriminaziorik ez izateko eskubidea; haurraren interes gorena; bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; iritzia errespetatzeko eskubidea; informazioa jasotzeko eskubidea, eta adierazpen-askatasunerako eskubidea.

Txostenak barnean hartzen du genero-ikuspegia ere, ingurune digitalean neskek eta mutilek, haur zein gazteek, jasaten dituzten desorekak aztertzeko.

1 Ohar Orokorra, (2021) ingurune digitalarekin lotuta hurrek dituzten eskubideei buruzkoa (CRC/C/GC/25). Eskuragarri **hemen**.

2 4. paragrafoa, 25. Ohar Orokorra, ingurune digitalarekin lotuta hurrek dituzten eskubideei buruzkoa.

2. Interneten erabilera

Lehen atal honetan, Euskadiko nerabeek Internet nola erabiltzen duten aztertuko dugu: zenbat denbora ematen duten konektatuta, noiztik erabiltzen duten, eta zer eduki kontsumitzen dituzten.

2.1. Konektibitatea

Inkestak egin zaizkien nerabeen % 96,6k azaldu du Interneteko konexioa baduela etxean. Internet erabiltzen zer adinetan hasi ziren galdetu zaienean, % 81,5ek aipatu du 11 urte betez geroztik nahiko maiztasunez erabiltzen zuela (estatuko batez bestekoak baino gehiagok, % 58koa baita), eta lautik bik 10 urte bete aurretik ere erabiltzeko ohitura zuten. Konexioaren maiztasunaz galdetu zaienean, Euskadiko mutilen eta nesken zifrak oso parekoak dira: % 31,2 mutilen kasuan, eta % 30,6 neskenean Estatuko gainerako lurraldeetan bezala, mutilek denbora gehiago pasatzen dute *online*, baina, Euskadiren kasuan, aldea ez da estatuan bezain sakona.

Kontu honekin lotuta, garrantzitsua da pediatriako zenbait gomendio ekartzea hona: 0-2 urte bitarteko haurrek pantailarik ez erabiltzea gomendatzen da; 3-5 urtekoek egunean ordubete baino gutxiago erabiltzea, eta 5 urtetik aurrerako haurrek egunean bi ordu baino gutxiago erabiltzea.³

Bestalde, gogoan hartu behar dugu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren arabera, sare sozialetan 14 urtetik gorakoak soilik sar daitezkeela; teorikoki, gurasoen baimena behar da adin horretara iritsi aurretik erabiltzeko.

2.2. Maiztasuna

10 nerabetik 6 egunean hainbat aldiz konektatzen dira Internetera (% 61,3) edo sarean daude etengabe (% 18,2). Konexio-orduak gero eta gehiago dira adinean aurrera egin ahala: 10 urtetik gorako neska-mutilen % 14,1ek 4 orduetik gora egiten ditu Internetera konektatuta,⁴ eta 13 urtetiko gorako nerabeen kasuan, % 22,2 dira. Gainera, haur eta nerabeak Internet beren egunerokoan erabiltzen zer adinetan hasi ziren azaltzen duten datuak eta konexio-orduak gurutzatuta, ikusten dugu **harreman estua dagoela Interneten adin goiztiarretan hastearen eta erabilera handiagoaren artean.**

³ Pediatriako Espainiako Elkarteak.

⁴ Datu hauetan, ez dira jaso etxeko lanak eta eskolako zereginak betetzeko konektatuta egiten duten denbora.

1. taula. **Konexio-denbora, egunerokoan Internet erabiltzen hasi ziren adinaren arabera**

	4 ordutik gora egunean	3-4 ordu egunean	2-3 ordu egunean	1-2 ordu egunean	Ordubete baino gutxiago egunean	Batere ez
10 urte bete aurretik	% 14,1	% 19,2	% 30,8	% 27,6	% 7,1	% 0,0
11 urterekin	% 6,1	% 23,2	% 24,4	% 30,5	% 14,6	% 1,2
12 urterekin	% 14,3	% 11,9	% 26,2	% 31	% 11,9	% 4,8
13 urterekin	% 22,2	% 22,2	% 22,2	% 22,2	% 11,1	% 0,0

Eta zer balorazio egiten dute eurek Interneten egiten duten denbora horretaz? Gehienek berenerabilera “normaltzat” jotzen dute (%49,3k), baina %24k azaldu du nahi lukeenabaino gehiagotan konektatzen dela; areago, % 4,8k adierazi du horrenbestetan konektatzeak beste gauza garrantzitsu batzuk albo batera uztea dakarkiola ondorio gisa.

Interneten pasatzen duten denbora beste jarduera batzuei kentzen ote dieten galdetuta, nabarmentzeko moduko zenbait datu ageri dira: % 30,8k irakurketari kentzen dio; % 25ek baino zerbait gehiagok, ikasketei; %25 inguruk, loari; % 19,9k, familiako denborari; % 18,2k, kirol-jardueri edo eskolaz kanpoko jardueri, eta ia % 16k, lagunak ikusteari. Hortaz, **konektatuta egoteagatik lo gutxien egiten duten eta lagunekin gutxien sozializatzen diren haur eta nerabe gehien dituen autonomia erkidegoa da Euskadi.**

Hortaz, nerabeek argi eta garbi identifikatzen dute zeri egiten dioten uko Internet erabiltzeagatik. Ea baden ingurune fisikoan “egiteari utzi dioten” baina ingurune digitalean egiten duten jarduerarik aztertu beharko genuke; esate baterako, lagunekin egotea. Ikuspegi horretatik, FADen txostenak zioen, nerabeen eta gazteen esanetan, ingurune digitalak lagunak egiteko eta lagunei eusteko bideak eman dizkiela.⁵

2.3. Sarbideak

Konexiorako gailu nagusia telefono mugikorra da (% 97,3). Gehien-gehienek beren telefono mugikorra dute, eta, beste pertsona batzuekin batera, sarbidea dute askok beste gailu batzuetan ere; ordenagailuetan, esaterako. **Nerabeentzat, oinarri-oinarrizko tresna da mugikorra**, eta jarduera ugari biltzen ditu: jolas egin, musika entzun, informazioa bilatu, lagun eta familiako sareekin konektatu, *online* erosi, lagun berriak egin...

2.4. Erabilera motak

Interneten erabilerak izan ditzakeen arriskuak eta eman daitezkeen proposamenak aztertzeke, garrantzitsua da “nola” eta “noiz” ez ezik “zertarako” erabiltzen den ere aztertzea. Hau da, Internetez zer erabilera egiten duten kontuan hartzea.

5 Megías, I. (2024). Jóvenes y Amistad. Madril: Fundación SM eta Centro Reina Sofía de FAD Juventud.

Alde handiak daude nesken eta mutilen artean, Interneten erabilerari dagokionez. Neskek gehiago erabiltzen dituzte sare sozialak, eta mutilek baino ia bi aldiz film edo serie gehiago ikusten dituzte. Mutilei dagokienez, alde handiena *online* jokoetan dago: mutilen % 62,4 ibiltzen da jokoetan, eta nesken % 8,8 baino ez.

Bigaren mailako iturri batzuek ere berresten dute neskek sare sozialak gehiago erabiltzen dituztela komunikatzeko, gizarteratzeko, harreman pertsonaletarako eta lagunarterako. Gainera, neskek euren bizimodua eta irudiak maizago erakusten dituzte argazki eta bideoetan, eta euren sentimenduak ere bai, eta arrisku handiagoa dakarkie horrek.⁶

2. taula. **Zer egin ohi duzu Internetera konektatzen zarenean?**

	Neskak	Mutilak	Guztira
Bestekin komunikatu (txata, mezu elektronikoak...)	% 80	% 76	% 77
Sare sozialak erabili	% 84,7	% 75,9	% 80,5
Edukiak sortu	% 17,5	% 25,5	% 21,6
Beste sortzaile batzuen edukiak ikusi	% 25	% 21,5	% 46,5
<i>Online</i> jolastu	% 8,8	% 62,4	% 36,3
Telesailak edo filmak ikusi	% 66,4	% 31,2	% 47,6
Musika entzun	% 73	% 73	% 71,2
Informazioa bilatu	% 27,7	% 19,9	% 23,6
Erosi	% 8	% 6,4	% 7,2
Helburu zehatzik gabe nabigatu	% 5,1	% 5,7	% 5,8

Bestalde, neska-mutil gazteenen arteko elkarrizketetan (10-12 urte bitartekoak), baztertu egiten zuten nolabait euren sortutako eduki pribatuak sareetan partekatzea, nahiz eta mutil batzuek edukiak partekatzen zituzten bideojokoetan zebiltzanean. Horrez gain, mutilen artean erreferentzia gehiago egiten zizkieten YouTuberi eta gai batzuei buruzko informazioa bilatzeari.

Ondoren adierazten diren sare sozialen edo aplikazioen bidez bideratzen da erabilera hori, gehien erabiltzen direnak nabarmenduta: WhatsApp (% 81,5), Instagram (% 71,2), TikTok (% 65,8) eta YouTube (% 55,5).

2.5. Deskonexioa

Zer adierazten du hiperkonektibitateak? Haurrak eta nerabeak ingurune digitalean egoteak eta sare, plataforma eta mezularitza-kanalen bidez etengabe interakzioan aritzeak espezifikoki zaugarriak diren egoerak sorrarazten ditu: gutxiagotan jartzen dute

⁶ Estébanez, I., & Vázquez, N. (2013). Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

zalantzan beren bilaketan emaitzak egiazkoak diren; zailtasunak dituzte mundu digitaleko ekintzak eta mundu fisikokoak bereizteko, eta ez dakite beti Interneteko zer erabilera jo daitezkeen jardunbide egokitzat.

Nerabeen bizitzako esparru guztietan etengabea den konexio horrek zuzen-zuzenean eragiten dio nerabeen sozializazioari, are gehiago Bigarren Hezkuntzan; izan ere, etapa horretan, gizarte-inguruneak, lagunek eta erreferenteek garrantzi eta eragin handiagoa dute.

2.6. Erabilera-arauak

Nerabeen Interneteko jarduerak mugatzeko edo kontrolatzeko familiek zer ekintza eta estrategia abiarazten dituzten jakin nahi izan dugu. Hauek dira gehien erabiltzen dituzten estrategiak: arriskuak azaltzea (% 34,2), konexio-orduak mugatzea (% 34,2) eta sortu daitezkeen arriskuen aurrean zerbait egiten laguntzea (% 26,7). Nabarmena da: orduen kopurua mugatzearen kasuan izan ezik, gainerakoetan, **ematen du neskei mutilei baino kontrol- eta gainbegiratze-neurri gehiago aplikatzen zaizkiela, eta sortu daitezkeen arriskuei eta horiei aurre egiteko moduei buruzko azalpen gehiago ematen zaizkiela:** mundu digitalean ere, pentsatzen dugu arrisku horiekiko esposizio handiagoa dutela neskek, edota gerta dakiekeenaren erantzule egiten ditugu.

3. taula. **Interneten eta sare sozialen erabilerarako kontrol, arau eta muga motak**

	Neskak	Mutilak	Guztira
Topatu ditzakezun arriskuak azaltzen dizkizute	% 46,7	% 22	% 34,2
Konektatuta ematen dituzun orduak mugatzen dizkizute	% 35	% 34	% 34,2
Sortu daitezkeen arriskuen aurrean egin beharrekoa egiten laguntzen dizute	% 19,1	% 35,7	% 26,7
Sare sozialetan jarraitzen dizute	% 14,6	% 5,7	% 9,9
Interneten zer egin dezakezun eta zer ez azaltzen dizute	% 10,2	% 6,4	% 8,2
Interneten zer egiten duzun galdetzen dizute	% 2,9	% 4,3	% 3,8
Sare sozialetako zure profilak gainbegiratzen dizkizute	% 2,9	% 2,1	% 2,7
Konektatuta zauden bitartean pantailari begira egoten dira	% 4,4	% 2,1	% 3,1
Iragazkiak edo blokeatzeko baliabideak erabiltzen dituzte	% 8,8	% 9,2	% 8,6
Bidalitako eta jasotako artxiboak kontrolatzen dituzte	% 2,2	% 4,3	% 3,8

3. Ingurune digitalaren erabilerarekin lotutako zenbat arrisku-faktore

Ondoren, ingurune digitalak eta nerabearoak berak dituzten zenbait arrisku-faktore aztertuko ditugu, bien arteko erlazioa are eta zailagoa egiten dutenak: nerabeen zaugarritasun emozionala, sareetako deshumanizazioa, bakardadea eta hiperkonektibitatea, edo edozein edukitan inolako kontrolik gabe sartzeko modua izatea.

3.1. Nerabearoko zaugarritasun emozionala

Bizitzako etapa honetan, arriskuaren pertzepzio txikiagoa dute, kidekoen taldeak garrantzi handiagoa hartzen du bai erabakiak hartzerakoan eta bai erreferente gisa, eta, askotan, ideia eta eredu berriak bilatzen dituzte familia-esparrutik kanpo, ezarrita datorrena zalantzan jartzeko. Horren guzti horren ondorioz, oso zaugarriak dira nerabeak etapa horretan, beraiek jabetzen ez badira ere.

Ildo horretatik, % 20 inguruk erantzun du batzuetan **zailtasun ugari pilatzen zaizkiola sentitzen duela, eta ezin izango dituela gainditu pentsatzen duela; eta beti edo ia beti horrela sentitzen direla diotenak % 21 dira** (nesken % 57 eta mutilen % 33).

Gainera, nesken % 52k dio batzuetan bere inguruan gertatzen ari zirengauza garrantzitsuak kontrolatzeko ezgauza sentitu dela, eta mutilen % 41ek dio hori.

Arazo pertsonalak bideratzeko segurtasunaz galdetuta, nesken % 56 inguruk dio inoiz edo ia inoiz ez dela horretarako gai sentitu, eta % 44k dio batzuetan soilik sentitu dela gai. Mutilen artean, atal horiei dagozkien datuak % 25 eta % 44 dira.

3.2. Deshumanizazioa

Beren identitate fisikoa beren identitate digitalarekin batera erabiliz hazi dira nerabeak, eta interakzio modu desberdinak dituzte ingurune horietako bakoitzean. Esate baterako, interakzio fisiko batekin alderatuta, plataforma batek desberdin adierazteko bidea ematen die, seguruago edo zuzenago adieraztekoa, adibidez.

Beste batzuetan, kontuan hartu behar da ingurune digitalak hainbat identitate izateko aukera ematen diela, eta, beraz, *online* interakzioetan, ezin duzu ziur jakin hizketakide duzun pertsona hori esaten duena den edo esaten duen bezalakoa den.

Elementu horiek guztiek **ingurune digitaleko interakzioen eta identitateen "deshumanizazioa" eragin dezakete, eta interakzio fisiko batean inoiz izango ez lituzketen jokabideak hartu ditzakete neska-mutilek**. Horrek, neurri handi batean, ziberjazarpen-egoerak agerraraz ditzake.

3.3. Bakardadea

Badago kontu bat kontraesankorra izan daitekeena ingurune digitaleko sozializazioan: sare sozialen bidez interakzioan jarduten dutenez, nerabeek bakarrik dauden leku eta uneetan egiten dute hori, eta ez da halakorik gertatzen sozializazio fisikoan. **Bakardade fisiko horrek, gailu digitalak erabiltzerakoan sortu daitekeen bakardade horrek, egoera arriskutsu bat hautematen den unean norbaitengana jotzeko zailtasun handigoa duzun sentipena sortzen du.** Sareak erabiltzen dituztenean neska-mutilen zaurgarritasuna areagotu dezakeen elementu bat izan daiteke hori, eta hasiera batean Interneten arrisku batzuk jasateko bereziki zaurgarritzat hartuko ez genituzkeen pertsonak zenbait ziberdelituren biktima bihurtzea ere ekar dezake horrek guztiak, lagunduko dien eta izan daitezkeen arriskuez ohartaraziko dituen inor ondoan izan gabe aritzen direnez. Esate baterako, mutil eta neska asko ez dira jabetzen poliziara jo dezaketela, gertatu zaiena *online* ingurunean gertatzen bazaie.

3.4. Etengabeko konektibitatea eta edukiak inolako kontrolik gabe izatea eskura

Online munduak ez du amaierarik, eta ez da inoiz desaktibatzen. **Biral bihurtzeko ahalmenaren eta konektibitatearen ondorioz, zenbait egoera arriskutsu edo indarkeria mota maila esponenzialetara irits daitezke,** eta garai bateko biktimaren prototipoarekin bat ez datozen neska-mutilei ere eragin diezaike. Esaterako, berriki argitaratu dugun **Isilaraziak** ikerlanean, honako ondorio hau azaleratu genuen sexu-indarkeriari buruz zenbait neskarekin osatutako eztabaida-taldean: sexu-eraso baten beldurrari eraso biral bihurtzeko beldurra erantsi behar zaio.

4. Interneten erabilerarekin lotutako arriskuak

Argi eta garbi indarkeriatzat hartu ditzakegun zenbait gai lantzen hasi aurretik, heldu diezaiegun sareko zenbait jokabide eta jarrerari, delitu gisa beti ezin tipifikatu badira ere, nerabeen ongizate emozionalari eta psikologikoari eragin baitiezaiekete.

4.1. Online apustuak

Teorian, 18 urte artekoek ezin dute dirurik jokatu Interneten, baina ez dute oso zorrotz jokatzen adina kontrolatzeko orduan: inkestari erantzun dioten nerabeen % 1,3k apustuak *online* egiten dituela adierazi du. Euskadin egindako inkesten arabera, bada harrigarria iruditu zaigun datu bat: mutilek soilik egiten dituzte apustuak.

Bestalde, aipatzekoa da Euskadin adingabeen apustuak egiteko maiztasuna estatukoa baino txikiagoa dela, eta apustuak egiten dituztela dioten ia guztiek astean behin edo bi

aldiz jokatzeko dutela. Ez dezagun ahatz, gainera, jokabide horrek, delitu egitea ez ezik, mendekotasuna ere ekar dezakeela.

Nerabeek eurek, askotan, *onlineko* apustuak eta ausazko jokoak beste dibertsio modu bat balira bezala hartzen dituzte, eta aisialdiko jarduera normalizatu eta onartutzat jotzen. Interneten eta telebistako kateetan horren publizitatea egiteak, askotan haurrek ezagutzen dituzten *influencer* edo beste famatu batzuen babesak izateak edo protagonista halakoak izateak indartu egiten dute pertzepzio hori.

4.2. Informazio faltsua eta gorroto-diskurtsoekiko esposizioa

Zalantzarik gabe, Internet funtsezkoa izan da informazioaren eskuragarritasunak izan duen bilakaeran, baina, gune horretan, **informazio oker asko dabil, eta okerra ez ezik, baita eredu eta estereotipo kaltegarriak sorrarazi eta bultzatzen dituen ere, gorroto-diskurtsoak osatzeraino iritsiz zenbaitetan**. Ingurune digital batek dakartzan arriskuei heltzeko orduan, kezka nagusietako bat horixe dela adierazi du Haurrek Eskubideen Batzordeak: “Ingurune digitalean, genero-estereotipoak, diskriminazioa, arrazakeria, indarkeria, pornografia eta esplotazioa aldeztu dituen informazioa egon daiteke, bai eta kontakizun faltsuak, okerreko informazioa eta desinformazioa ere; horrez gain, haurrak legez kontrako jardueretan edo jarduera kaltegarrietan parte hartzera bultzatzen dituen informazioa ere izan daiteke”.


Informazio faltsu hori izate hutsak haurrek eta nerabeek informazioa izateko duten eskubidea urratzen du zuzenean, eta are nabarmenagoa da hori neska-mutilei galdetuta zer erantzuten duten ikustean: informazioa eskuratzeko iturri nagusien artean bigarrenena da haien sare soziala, eta familia eta lagunak baino ez dituzte jartzen horren aurretik; sare sozialen atzetik kokatzen dituzte, berriz, komunikabideak, telebista edota lineako prentsa, esaterako.

4.3. Informazio-iturri fidagarrien pertzepzioa

Informazio faltsu hori izate hutsak haurrek eta nerabeek informazioa izateko duten eskubidea urratzen du zuzenean, eta are nabarmenagoa da hori neska-mutilei galdetuta zer erantzuten duten ikustean: informazioa eskuratzeko iturri nagusien artean hirugarrena da haien sare soziala, eta familia eta lagunak eta telebista baino ez dituzte jartzen aurretik. Gainera, % 15,8k uste du sare sozialak eta edukien sortzaileak informazio-iturri onak direla; % 65,8k, berriz, zenbait kasutan hala izan daitezkeela uste du.

Kontu honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu mutilen eta nesken arteko aldea: mutilen % 18,4k uste du edukien sortzaileak informazio-iturri fidagarriak direla, eta nesken % 12,4 dira hori uste dutenak. Alde hori esanguratsua da bereziki eranskin honetako atal batean, edukien sortzaileen profil jakin batzuek lantzen direnean, zehazki.

1. grafikoa. **Uste duzu sare sozialak eta edukien sortzaileak informazio-iturri onak direla?**



4.4. Gorroto-mezuekiko esposizioa sare sozialetan

Neska-mutilekiko elkarrizketetan ikusi dugunez, nerabeek eurek adierazi dute zenbait sare sozialetan lehentasuna dutela eta saritu egiten direla gai polemiko batzuk edota, zuzenean, gorroto-diskurtsoak.

Elkarrizketetan, neska-mutilek erakutsi zuten sareetan arrazakeriarekin eta sexualitatearekin lotutako estereotipoak sustatzen dituzten edukiak jasotzen dituztela. Mezu horietako asko modu oldarkor eta desafiatazailer batean helarazten dizkiete, konbentzio sozialekiko haustura bat eraginez, esparru digitalean eragin handia duten pertsonaiek, nerabe askorentzat erreferentzia direnek. Halako ezaugarriek oihartzun berezia izan dezakete zenbait adinetan, non, zehazki, botere harremanak eta ordura arte beren bizitza eta beren balio-sistema zedarritu dituzten ereduak zalantzan jarriz ere eraikitzen baita identitate soziala.

Esposizio horrek eta, horrekin batera, ingurune digitaleko interakzio eta identitateen ezaugarri den eta interakzio fisikoetan izango ez liratekeen jokabideak sorrarazten dituen deshumanizazioak eduki horiekiko zaurgarriagoak bihurtzen ditu neskak eta, bereziki, mutilak. Horren adibide garbi bat taldeak, banakakoak edo gizarte-mugimenduak baztertzen dituzten diskurtsoak dira, talde, banakako edo mugimendu horiek mehatxu direlako jarrera matxista, arrazista eta homofoboetan oinarritutako *statu quo* batentzat. Badirudi mutilakari direla bereziki horrelako diskurtsoak bereganatzen (genero-indarkeria ukatzea, esaterako).

Diskurtso horiek, hein batean diskurtsoa eta boterea dituenarentzat mehatxagarriak diren eskari edo jokabideak desaktibatzen kontrol sozial bat besterik ez direnak, kezkarriak

dira bereziki, oso zaila delako horiek zenbait datuekin edo informazioarekin aurkaratzea eta desaktibatzea, informazio horri kontra egiteaz gain irismen eta ikusgarritasun emozional bera sortu dezaketen datuekin eta informazioarekin, zehazki. Aaren garapenean ere kezka eragiten du gorroto-diskurtsoaren ikusgarritasun eta irismen horrek; izan ere, ingurune digitalean den edukia “ikasten” duenez, hainbat estereotipo iraunaraz ditzake.

Nesken artean, desberdina da gorroto-diskurtsoen aurrean duten erantzuna, askotan eurak direlako diskurtso horien jomugak eta, oro har, mezu oldarkor eta iraingarriak jasotzen dituztelako, konplimendu eta lore itxurako hitz faltsuekin batzuetan. Zehazki, mutilekin eta neskekin izandako elkarrizketan, diote Internet gune oldarkorragoa eta biolentoagoa dela neska eta emakumeentzat.

Garrantzitsua da esatea LGTBQ+ eta aniztasuneko neska-mutil taldeetan defendatu zela gehien adierazpen-askatasuna, eta gorroto-diskurtsoen aurka azaldu ziren, nahiz eta ez zen berariaz esan modu pertsonalean horrelakorik bizi izan zutenik. Hala ere, esan beharra dago, inkestan, Euskadiko nerabeen % 6,5ek erantzun zutela gorrotozko mezuak jaso zituztela.

4.5. Berri faltsuak hautematea

Kontuan hartuz horixe dela Interneten bazterrik bazter dabilen informazioaren panorama, nerabeek ba al dakite Interneten berri faltsuak identifikatzen? Bada, % 28k dio badakiela, % 22,3k ez dakiela erantzun du, eta % 44,9 “baldintzaturik” erantzun du. Horrek esan nahi du nerabeen erdiak baino gehiagok (% 67,2) ez dakiela beti identifikatzen berri faltsuak daudela.

4. taula. **Badakizu nola identifikatu berri faltsuak Interneten?**

	Bai	Ez	Kasuaren arabera	ED/EE
Neska	% 21,2	% 20,4	% 58,4	% 0,0
Mutila	% 35,5	% 23,4	% 31,2	% 9,9
Guztira	% 28,1	% 22,3	% 44,9	% 4,8

5. taula. **Interneteko informazioa faltsua denaren susmoa baduzu, zer bitarteko alternatibo erabiliko zenituzke egiaztatzeko?**

	TV	Paperezko prentsa	Prensa Online	Irratia	Familia edota lagunak	Ez du egiaztatzen
Neska	% 43,1	% 13,1	% 29,2	% 9,5	% 56,9	% 21,9
Mutila	% 41,8	% 14,9	% 23,4	% 14,2	% 44	% 17,7
Guztira	% 42,1	% 15,1	% 25,7	% 12,3	% 50,3	% 20,2

Informazio bat faltsua denaren susmoa dutenean hori egiaztatzeko jotzen duten iturriei buruz, bi erantzun nabarmentzen dira: % 20,2k ez du egiaztatzen, eta, egiaztatzen dutenen artean, senideak eta lagunak dira egiaztatzeko iturri nagusia. Kezkagarria da lagunek eta parekoek ere berrien iturri berberetara jotzen dutela.

4.6. Bizitzeko eredu irrealen eta itxuraren eraginpean

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan (LOPVI) edo Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotzen diren indarkeria mota gisa katalogatu ezin daitekeen arren, gero eta kezkagarriagoa da bizimodu jakin batzuen adierazpen idealizatuen, edertasun estandarren eta, nesken kasuan bereziki, gorputz femeninoaren sexualizazioaren inguruan sareetan dagoen esposizioak osasun mentalean izan dezakeen inpaktua.

Irudi idealizatu horiez gain, sareetan etengabe agertzen da bizitza pribatuan oinarritutako negozio-eredua. Telebistan eta prentsa tradizionalen hasi zen fenomeno hori mundu digitalera igaro da, eta *influencer*ren bidez garatzen ari da; edonork bere bizitza eta jarraitzaileena erakutsiz dirua irabazteko aukera izan dezakeela erakusten dute. Horren ondorioz, "intimitatearen" kontzeptuak beste esanahi bat hartzen du mundu digitalean.

Neskekin izandako elkarrizketetan, antzekotasuna sentitzen duten, aholkuak ematen dituzten edo "diren bezala" azaltzen diren pertsonei jarraitzen diete, bai eta pertsona ospetsuei ere, haien bizitza pribatuaren berri jakin nahi izaten dutelako. Adierazten dute ez direla elkarreraginean aritzen profil horiekin, baina jartzen dutena jarraitzen dutela. Mutilek interakzio handiagoa aitortzen dute jarraitzen dieten pertsonekiko, eta normalean bideo-jokoen edo kirolaren (batez ere, Twitch plataformaren bidez) munduarekin zerikusia duten pertsonak izan ohi dira. Antza denez, alde handia dago mutilen eta nesken artean sareetan jarraitzen dituzten estereotipoek eta erreferenteei dagokienez.

Influencer bati sareetan edo plataformetan jarraitzearen arrazoia edozein dela ere, figura horiek guztiek bi baliozkotze jasotzen dituzte jendearen aldetik beren bizitza pribatua erakusteagatik: baliozkotze ekonomikoa, jarraitzen dizuten edo zutaz hitz egiten duten pertsona kopuruaren arabera neurtzen den negozio-eredu bat delako, eta baliozkotze soziala, jarraitzaile eta interakzio kopurua handituz, jartzen dituzten irudiak edo berriak zenbat eta intimoagoak edo pribatagoak izan orduan eta gehiago handitzen direnak.

Esposizio horren baliozkotze publiko eta, are, ekonomiko horrek neska-mutilak horiek errepikatzen bultzatzen ditzake, alderdi pertsonalagoak eta argazki intimoak edo sexualizatuak partekatzen eramanen, bereziki nesken kasuan. Neskek, gainera, jendearentzat desiragarriak diren gorputzetara moldatzeko presioa senti dezakete, eta kosifikazioa eramango dituz horrek.

Hala, bada, nesken kasuan garrantzi berezia du irudi horiek iraunarazten dituzten estereotipoak sexisten inpaktuak, edertasunaren, gorputzaren edo sexualitatearen adierazpenean eragiten dutenak. Edertasunari eta gorputzko irudiaren kontrolari buruzko gizaratearen eskakizunek neskei eragiten diete gehienbat, eta halaxe gertatzen da ingurune digitalean ere. Genero-erolek eta estereotipoek garrantzi handia dute kosifikazioaren

kontzeptualizazioan. Horren ondorioz, neskek mutilek baino gehiago jasan behar izaten dituzte hasieratik gutxiagotasun- eta zaurgarritasun-egoerak.

Ondorioak bi mailatan adierazten dira: maila orokorrean, estereotipoak eta rol sozial estereotipatuak mantentzen eta indartzen dira, arrakastatsuenak direlako (partekatuenak eta jarraituenak); norbanako mailan, berriz, neskegan beren ongizate emozionalari eragiten dioten gertaerak izaten dira, esaterako, autoestimu baxua edo norberaren buruarekiko konfiantzarik eza, eta jokabide-nahasmenduak izatera edo beren gorputza zauritzera eraman ditzake horrek. Mutilengan, aldiz, ez da gertatzen autoestimua eta kosifikazioaren arteko harreman dual hori, ez baitaude, neskekin alderatuta, pertsona arteko kosifikazio sexualen horrenbesteko gertaeren eraginpean.

Bitxia bada ere, *influencerrak* edo *streamerrak* euren ongizatea edo osasun mentala arriskuan jar dezakeen elementu gisa ikusi beharrean, enpatiazko sentimenduak garatzen dituzte haiekiko, gogorra iruditzen zaielako beren bizitza erakutsi behar izatea garrantzitsuak izaten jarraitzeko, horren ordainetan erasoak eta kritikak jaso ditzaketela aintzat hartuta, gainera.

4.6. Sareak, pertsonak kontrolatzeko bide

Badago jokabide arriskutsu eta kaltegarriei buruzko atal honetan azalduko dugun jokabide bat, inguruabar jakin batzuetan delitutzat hartu datekeena.⁷ **Bikotekidea edo lagunak zelatatu eta kontrolatzeko sareak erabiltzeaz** ari gara. Batik bat bikote-harremanetan aztertzen den jokabide bat bada ere, ikerketa honetan ikusi dugu beste harreman mota batzuetan ere erabiltzen dela kontrol mota hori, lagunekin, esaterako.

Erabiltzaileen mugimendu eta ekintzen gainean kontrol handiagoa izateko bidea ematen dute geolokalizazioak, zuzeneko emisioek eta “azken konexioa” noiz egiten den ikusteko aukerak. Nerabeei euren inguruko pertsonak zer egiten duten kontrolatzeko balio die, eta pertsona horiek beste bide batzuetatik ematen dizkieten datuekin bat ote datozen ikusteko.

Galdetutako nerabeen % 6 inguruk uste du ondo dagoela bikotekideari mugikorra begiratzea, eta % 39k dio egoera jakin batzuetan dagoela ondo. Kasu honetan ere ez dago alde handirik neska eta mutilen artean, baina neskek adostasun handiagoa erakutsi dute jarrera horiekiko.

⁷ Jokabide horiek, kasurik larriaren, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako *online* indarkeria motekin lot daitezke, genero-indarkeriaren esparruan, betiere, eta, aldi berean, Zigor Kodean jasotzen diren delituak adieraz ditzakete, besteak beste: IKTen bidezko jazarpena; zilegi ez diren bideetatik sekretuetara jo eta interpretatzea, eta horiek aurkitzea eta ezagutaraztea; ohorearen aurkako delituak, irainak eta kalumniak; eta datu eta sistemetan sartzea, biktimaren datuei kalte egiteko edo horiek aldatzeko.

6. taula. **Zure ustez, ondo dago norbaitek mutil-lagunaren edo neskalagunaren mugikorraren edo ordenagailuaren edukia begiratzea?**

	Bai	Ez	Kasuaren arabera	ED/EE
Neska	% 5,1	% 53,3	% 41,6	% 0
Mutila	% 6,4	% 44	% 36,9	% 12,8

4.7. Eduki erotiko eta pornografikoen eraginpean

Neska-mutilek Interneten topatu ditzaketen eduki kaltegarrien artean sartzen dira eduki erotikoak eta pornografikoak: **Euskadiko nerabeen % 38,4 bilatu gabe iritsi da material mota horretara.**

Eduki horien eraginpean jartzeak oso ondorio negatiboak ekar diezazkioke haur eta nerabeen garapenari, emakumeen kontrako indarkeria erotizatzerarenean irits daitezkeen eredu patriarkal batean oinarritutako sexu-harremanak hauteman eta identifikatuko baitituzte. Ondorio horiek larriagotu egiten dira sexu-jokabide horiek beren arteko harremanetara eramaten dituztenean.

4.8. Ezezagunekin harremanetan jartzea eta elkartzea

Pertsona ezezagunekin harremanetan jartzea ez da delitua berez, baina arrisku-faktore izan daiteke indarkeriaren biktima bihurtzeko. *Child grooming* eta antzeko egoerak geroxeago landuko baditugu ere, hona iritsita, garrantzitsua iruditzen zaigu jakitea zer nolako presentzia duten ezezagunekiko harremanek neska-mutileen *online* jardueran: Euskadiko nerabeen % 14,7 ezezagunekin harremanetan jartzen da Internet bidez, eta atal honetan zertxobait gehiago dira neskek mutilak baino (% 16,8 neskek; % 12,8 mutilak).

Zer diote esparru fisikora jauzi egiteaz? **% 18,8k adierazi du elkartuko litzatekeela ezezagun batekin, eta % 35,6k, baldintza jakin batzuetan.** Kasu honetan, ez dago alderik ia nesken eta mutileen artean Euskadin: mutilen % 19,1ek ontzat emango luke Internetez soilik ezagutzen duen jendearekin gelditzea, eta nesken % 19k ere horrela jokatu luke.

5. Sareko indarkeria

Ingurune digitalean haurrentzat eta nerabeentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokaerak aztertu ondoren, eremu horretan jasan ditzaketen indarkeria-motak aztertuko ditugu. Izan ere, indarkeria da Interneteko arriskuen gaia lantzeko orduan dagoen kezkarik handienetako bat.

5.1. Datuak

Badakigu salaketak izozmendiaren punta baino ez direla, baina errealitate horren lehen irudia eman diezagukete. Barne Ministerioaren datu ofizialen arabera,⁸ 2022an (txosten hau idatzi zen unean eskuragarri zeuden azken datuak), 234 salaketa erregistratu ziren guztira adingabeen aurkako Interneteko delituengatik Euskadin. Ingurune digitalean haurrei eta nerabeei eragiten dieten deliturik ohikoenak mehatxuenak dira (52 salaketa erregistratu ziren, eta ia berdin eragiten diete neskei eta mutili). Halaber, derrigortzeekin lotutakoak (37 kasu) ere jaso ziren, eta neskei eragin zieten nagusiki. Nabarmentzekoak dira, halaber, *groominga* (31 kasu, eta horietatik % 74k neska bat du biktima), hertsapenak (37 kasu, eta biktimen % 70 neskak dira), kreditu-txartelarekin, zordunketa-txartelarekin eta bidaiatze-keekin egindako iruzurrak (23 kasu), sekretuak azalera edo ezagutaraztea (15 kasu). Era berean, hainbat iruzur motarekin lotutako salaketa ugari daude.

Gertakariei dagokienez, 2022an, 3.049 atxilotu eta ikertu izan ziren ziberdelituengatik, eta horietatik 34 adingabeak ziren (22 mutil eta 12 neska). Adingabeek egindako egitateen artean, sexu-delituak (23) eta mehatxu-delituak (11) nabarmentzen dira.

5.2. Ziberjazarpena

Ziberjazarpena jazarpena ingurune digitalera eramatea da. Horrek esan nahi du lehen espazio fisiko jakin batzuetan (ikastetxeetan, aisialdi-zentroetan, kirol-zentroetan) jasaten zen indarkeria hori etengabe gertatzen dela ingurune digitalean, eta, gainera, publikoa potentzialki globala dela eta eraso esponentzialki errepikatzen dela.

Ziberjazarpenari buruz zuzenean galdetzen denean, datuak nahiko baxuak dira, beste estatistika batzuekin alderatuta: Euskadin inkestatutako nerabe bakar batek ere ez du adierazi ziberjazarpena jasan duenik. Hala ere, **ziberjazarpena eragin dezaketen beste jokabide batzuk gehitzen direnean, handitu egiten da jokabide horien biktima (eta biktimagile) direla dioten neska-mutilen kopurua:**

- » Gorroto eta diskriminazio mezuak jasotzea: % 6,5
- » Irainak edo mehatxuak jasotzea: % 5,8

⁸ Ziberkriminalitatea. Portal Estadístico de Cibercriminalidad. Barne Ministerioa (2022).

Nerabeek oso normalizatuta dituzte jokabide horiek, eta mezu bortitzak eta umiliazioak jasotzea sareko elkartrukeen eta bizitzaren parte gisa hartzen dituzte.

5.3. *Child groominga*

Familien kezka nagusietako bat *groominga* da, hau da, heldu bat sareen bidez haur edo nerabe batekin harremanetan jartzea, pixkanaka haren konfiantza lortzeko, sexu-jarduera batera eramateko helburuarekin. Hasiera batean adiskide egiteko asmoarekin has daiteke, eta gai sexualetara edo adingabeari argazki intimoak bidaltzeko eskatzera igaro daiteke; ondoren, estortsio bat gerta daiteke, eta sexu-jarduerak arlo digitaletik fisikora eramateko eskaera, *groomerrak* lortu nahi duen azken helburuaren arabera.

Gure inkestaren emaitzen arabera, Euskadin, mutilen eta nesken % 14,7k hitz egiten du Interneteko pertsona ezezagunekin, nahiz eta inkestari erantzun dioten haur eta nerabeetako batek ere ez dien sexu-mezurik bidali ezezagunei. Hala ere, % 18k baino gehiago (% 18,8) aintzat hartuko lukete pertsona horiekin aurrez aurre ikustea.

Detekzio goiztiarra funtsezkoa da, engainatzeko fasean esku hartu ahal izateko, eta, nolana ere, biktimen inguruko isiltasuna hausteko. Horrela, indarkeria mota horren biktima izategatik sortutako arazo psikologikoei eta emozionalei aurrea hartu ahal izango zaie.

5.4. *Genero-indarkeria digitala*

Genero-indarkeria digitala Internetetik kanpo emakumeen aurka egindako indarkeriaren hedapentzat hartu behar da, ingurune digitalerantz hedatzen baita. Haur eta nerabe nesken zaurgarritasuna handiagoa da sexu-indarkeriaren biktima izateko orduan, eta mundu digitalean ere islatzen da hori. Era berean, emakumeek jasaten dituzten gainerako indarkeriek ere arlo fisikoa gainditzen dute, eta mundu digitalera eramaten dira sexu-jazarpena edo zirikatzea. Nabarmendu behar da genero-indarkeria digitalak barnean hartzen dituela informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (Internet, sare sozialak, aplikazioak, mezularitza-sistemak eta abar) erabiltzeak zati batean edo bere osotasunean eragindako, bultzatutako edo larriagotutako genero-indarkeriako ekintza guztiak. Beraz, barnean hartzen ditu umiliazioa, xantaia, jazarpena, kontrola edo pribatutasunean sartzea eragiten duten jokabideak, eta bikotekidearen edo bikotekide ohiaren harremanetatik harago doa.⁹

Bikotekidearen testuinguru horretan kontrolatzeko erabiltzen den indarkeria da azken urteetan gehien handitu eta normalizatu den genero-indarkerietako bat, ingurune digitalean bereziki. Gainera, indarkeria sotila da, eta nerabeek beren erabakiak hartu ezin izateko ekintza guztiak biltzen ditu, konfiantzaren nozio faltsu batean oinarrituta haien intimitatea urratuta. Oso jokabide arrunta da nerabeen artean.

⁹ Teknologia eta Gizartearen Behatoki Nazionala. Genero-indarkeriaren aurkako politika publikoak. Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa (2022).

Gertatu bada, egon gertu. Save the Childrenen, “**Gertatu bada, egon gertu**” Erreminta Kutxa garatu dugu, sareko indarkeria kasu baten lekuko izan diren 14 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeek indarkeria hori geldiarazteko edota indarkeria hori betikotzea saihesteko jarrera proaktiboa hartu dezaten sustatzeko xedez. Erreminta Kutxan jasotako materialak portaera-zientzietan oinarrituta egin dira. Horri esker, nerabeen artean sareko indarkeria sustatzen duten joerak edo isuriak zein diren uler dezakegu, gero haien pertzepzioetan eragina izango duten tresnak garatzeko eta, horrela, nerabeei kalte egin diezaieketen edo babesik gabe utz ditzaketen portaerak aldatzeko. Tresna hau batez ere irakasleentzat da, ikasgelan gai hori landu dezaten. Gainera, administrazio publikoak eta beste erakunde batzuk ere inplikatu nahi dira sareko indarkeriaren aurkako borrokan.

Kutxa honek bi jarduera nagusi ditu: **(1)** Rol-joko bat; jokoan parte hartzen duten pertsonen sareko indarkeria-egoera simulatuak bizitzeko aukera izango dute, eta, horrela, ikusle gisa denbora errealean egoera horiei aurre egiteko hainbat modu praktikatu ahal izango dituzte. **(2)** Gida moduan erabiltzeko ibilbide-orri bat, sarean dauden indarkeria motak urratsez urrats identifikatzeko eta horietako bakoitzaren aurrean modu eraginkorrean esku hartzeko. Horrez gain, hainbat laguntza-baliabideri edo baliabide instituzionali buruzko informazioa jasotzen du baita ere.

Erreminta-kaxa hori egiteko erabili den ikerketak datu kuantitatiboak (14 eta 17 urte bitarteko nerabeei egindako 300 inkesta) eta kualitatiboak (nerabeei egindako elkarrizketak eta gai horretako adituekin egindako lantegiak) biltzen ditu.



6. Gomendioak

6.1. Hezkuntza-eremua

- » Beharrezkoa da herri-administrazioak **teknologiaren erabilera seguruan eta arduratsuan hezteko eta sentsibilizatzeko prestakuntza** sustatzea, Haur eta Nerabeak Babesteko Legearen 96. eta 139. artikuluetan jasotzen denez. Haurrak eta nerabeak garatzen ari diren eta garatuko diren munduaren parte da mundu digitala, eta, beraz, **tresna horien erabilera ezagutzeko aukera emango dien prestakuntza jasotzeko eskubidea dute, haien babes-premia gainerako eskubideen erabilerarekin orekatuko duen ikuspegi batekin.**
- » Era berean, funtsezkoa da **hezkuntza afektibo-sexual arautuaren eta progresiboaren, adinaren arabera egokitutakoaren eta kontzeptu emozionalak, afektiboak eta onespenezekin lotutakoak planteatuko dituenaren** aldeko apustua egitea, aukera emango baitie nerabeei **egon daitezkeen indarkeriak identifikatzeko eta horiei aurrea hartzeko, bai eta errespetuan, segurtasunean eta ongizate emozionalean eta fisikoan oinarritutako sexualitatea** garatzeko ere.

6.2. Familia-eremua

- » Pertsona helduen eta nerabeen arteko **arrakala digitala eta belaunaldien artekoa, arrisku-egoerak detektatzeko informazio falta** eta ingurune digitala seme-alaben bizitzaren parte dela onartzeko **erresistentzia dira familiek gainditu behar dituzten oztopoak, eta erronka lagun eginez, entzunez eta ulertuz hartu behar dute berengain.** Horregatik, Haurren eta Nerabeen 02/2024 Legeak 139. artikuluan jasotzen duenaren ildotik, gurasoen, legezko ordezkarien eta harreragileen edo zaintzaileen alfabetatze digitalera bideratutako programak antolatu behar dira, bereziki, segurtasun digitaleko eta gurasoen kontroleko neurriak aplikatzeko gaitasunak eskuratzera bideratutakoak. Ezin dugu utzi gure erantzukizuna kontrolatzeko edo mugatzeko teknologien esku.

6.3. Eduki digitalen aurreko neurriak

- » 25. Ohar Orokorrak **eduki digitalak haurren adinaren eta bilakaeraren arabera egokituta sortzera** bultzatzen ditu herri-administrazioak, haien herritartasuna indartzeko eta haiek **informazioa eskura dezaten eta beren eskubideak baliatzen.** Eduki horiek askotarikoak izan behar dute eta eskuragarri egon behar dute, eta, era berean, arraza- eta genero-aurreiritzi eta -estereotipoen aurre egiteko eta inklusiboak izateko balio behar dute.

6.4. Adierazpen-askatasuna

- » Ingurune digitalean beren iritziak eta identitateak adierazten dituzten haurrek eta nerabeek kritikak, etsaitasuna, mehatxuak, jazarpena edo zigorrak jaso ditzakete. Alde batetik, Euskadiko herri-administrazioek **zibererasoen aurka babestu behar dituzte haurrak**, bai eta zentsuraren edo datu-filtrazioen eta zaintza digitalaren aurka ere. **Aldi berean, adingabeek adierazpen-askatasunerako eskubidea baliatzea sustatzen jarraitu behar da:** haurrak ez dira zentsuratu edo mugatu behar zeregin horretan, eta ez dira epaitu behar, non eta ez dituzten urratzen adierazpen-askatasunerako eskubidearekin bat datozen printzipio penalak.

6.5. Profesional espezializatuak

- » **Hezkuntza-psikologoaren figura txertatzea ikastetxeetan**, ingurune digitalean duten esperientzian senti dezaketen ondoezarekin lotutako ikasleen eskaerei erantzun ahal izateko.
- » **Beharrezkoa da, halaber, ikastetxeetako ongizate-koordinatzailearen** eta adingabeak parte hartzen duten aisialdi-zentroetako **babesaren esparruko ordezkariaren figurak bultzatzen jarraitzea**, indarrean dagoen legedian eskatutakoarekin bat etorriz. Pertsona horiek **sareko arriskuekin eta indarkeriekin lotutako prestakuntza izan behar dute**, kasu bat detektatzen denean edo ezagutarazten denean beharrezkoak diren bideratzeak eta protokoloak abian jarri ahal izateko.
- » Gainera, haurren aurkako indarkerian (fisikoa eta sarekoa) **espezializatutako eta genero-indarkerian prestakuntza osagarria duten profesionalak** falta dira, neska-mutilen **osasun mentalerako benetako arriskua** dakarten egoerei **osasunaren esparruan** erantzun ahal izateko.

6.6. Enpresa-mundua

- » Funtsezkoa da, halaber, EAEko Haur eta Nerabeen 02/2024 Legeak jasotzen duenaren ildotik, ingurune digitalean haurrak eta nerabeak egoteak dituen erronkei irtenbidea emateko **enpresa teknologikoen erantzukizun soziala sustatzearen alde egitea, besteak beste, adinaren arabera sartzeko mekanismoak indartuz, edukiak argi eta erraz etiketatuz haurrentzat, edo espezializazio handiagoa eskuratuz arrisku-egoeretan esku hartzeko.**



Ondorioa

Internetek benetako iraultza teknologikoa ekarri du. Sare sozialak, komunikazio-kanalak eta gailu mugikorren bidezko informazio-iturriak garatu dira, eta horiek guztiek gure ohiturak, harremanak eta mundu-ikuspegia aldatu dituzte.

Helduok behar baino denbora gehiago igarotzen dugu Interneten, eta horrek eragina du gure osasun mentalean, gure kontsumo-ohituretan eta gure jarrera politikoetan. Pertsona helduok ere arriskuak ditugu Interneten, eta ziberdelituen biktima izan gaitzke. Eta, hala ere, ezingo ginateke konexiorik gabe bizi. Gainera, helduok erakusten diegu hurrei Internet zer den, eta gailuak ematen dizkiegu. Enbarazurik egin ez dezaten, benetan uste dugulako tresna positiboa dela, beharragatik, talde-presioagatik... Arrazoi asko daude, baina arrazoi horien guztien ondorioz hurrek teknologia erabiltzen dute beren egunerokoan, beren bizitzetan barneratu dute. Eta orain, Internetetik, plataformetatik eta gailuetatik kanporatzea eskatzen dugu. Arriskutsuak direlako, ondorioak dituztelako.

Eta argi dago Internet gehiegi erabiltzeak ondorioak dituela, sare sozialek uste baino eragin handiagoa dutela gure ongizatean, ohituretan eta osasun mentalean, eta gure gailu mugikorrekiko mendekotasun handia dugula. Hori guztia berdina da haur eta nerabeen kasuan, baina, gainera, indarkeria jasateko arrisku handiagoa dute, bereziki zaugarriak diren garapen-une batean. Hala, bada, teknologiarekin dugun harremana, sareko gure ohiturak eta jokabideak berrikustera bultzatu behar gaitu horrek, enpresei kontrol eta erantzukizun gehiago eskatu behar diegu, eta babes handiagoa herri-administrazioei. Eta hori da, hain zuzen ere, haur eta nerabeei eman behar dieguna: irizpide gehiago, babes handiagoa, laguntza gehiago, segurtasun gehiago eta teknologien erabilera kontzienteago eta arduratsuago baten adibide egoki bat.

Gure ustez, pixkanaka hasi behar dute teknologiak erabiltzen, adin bakoitzari egokituta, pediatriako, zibersegurtasuneko eta osasun mentaleko gomendioei jarraituz. Uste dugu helduok neska-mutilen ondoan egon behar dugula erabilera horretan, haien burua babesten ez ezik, Interneten nola jokatu ere irakatsi behar diegula, benetako herritartasun digitala, errespetuan eta babesean oinarritutakoa, garatzeko jarraibideak eman behar dizkiegula. Eta hori guztia eskubideen ikuspegitik, elementu horiek guztiak orekatuko dituzten erabakiak hartzen saiatuz eta **haurren eta nerabeen eskubideak Interneten ere errespetatu behar direla ahaztu gabe.**

Argitalpen hau TRACEAS SCA, NosotrAs eta Citere enpresek aldez aurretik egindako ikerketari eta Iniciativas de Desarrollo 2030 S.L. enpresek egindako inkesten bidez lortutako datuei esker burutu da.



Argitaratzailea:
Save the Children Espainia
2025eko otsaila



Save the Children

#KONEXIORIKGABEKO

ESKUBIDEAK

